BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1757

AGINDUA, 2012ko otsailaren 15ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación BCBL, Basque Center On Cognition, Brain And Language» fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Bcbl, Basque Center On Cognition, Brain And Language» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko abuztuaren 23an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen eskari bata, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan «Fundación Bcbl, Basque Center On Cognition, Brain And Language» fundazioa inskribatzeko zena, zein «BCBL, Basque Center On Cognition, Brain And Language» elkarteak eratutakoa baita. Eskabideari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta 2011ko uztailaren 27an, fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Hirugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

«Fundación BCBL, Basque Center on Cognition, Brain and Language» fundazioak honako xede hau du: Neurozientzia Kognitiboaren gaineko ikerketa, oinarrizkoa, estrategikoa eta diziplinartekoa dena; batez ere, lengoaiaren arloan, betiere interesgarria bada eremu hauetarako: euskal gizartea; nazioarteko garapen zientifikoa; aipatu oinarrizko ikerketaren ondoriozko jakintza transferitzeko plataforma izatea; eta ikerketa hori aplikatzea eta garatzea aipatu komunitate zientifikoan eta oro har gizartean.

Laugarrena.– Estatutuen 5. eta 6. artikuluek diotenez, fundazioaren egoitza Donostian (Gipuzkoa) dago (Mikeletegi pasealekua 69, 0 solairua), eta batik bat Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Bosgarrena.– Hasierako dotazioa hogeita hamabost mila (35.000) eurokoa izango da. Eratzaileka jarriko du hasierako ondare-dotazioa. Kopuru hori ordaindu dela –agiri bidez– jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Seigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek doan beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

Kargua	Patronatuko kidea	Ordezkaria	Indarraldia
Lehendakaria	Elkarte eratzaileko lehendakaria.	Pedro Luis Arias Ergueta, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea.	Mugagabea
Lehendakariordea	Elkarte eratzaileko lehendakariordea.	Jon Uriguen Ansola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismoko foru diputatua, erakunde horren ordezkari gisa.	Mugagabea
Idazkaria	Elkarte eratzaileko idazkari.	Juan José Unzilla Galán, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak Koordinatzeko erretoreordea, erakunde horren ordezkari gisa.	Mugagabea
Diruzaina	Elkarte eratzaileko diruzaina.	José María Villate Blanco, «Innovasque, Berrikuntzarako Euskal Agentziako» zuzendari nagusia, erakunde horren ordezkari gisa.	Mugagabea

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko baten arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona juridiko pribatu batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa betez. Lege eta erregelamenduzko manuen arabera egin da Fundazioaren eraketa.

Arauak eta oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak ikusi dira.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Donostiako «Fundación BCBL, Basque Center On Cognition, Brain And Language» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, gaurko datarekin eta F-320 zenbakiaz, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak zazpigarren egitate-aurrekarian aipatzen dira, eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak, hain zuzen ere Jose M.ª Rueda Armengot notarioaren aurrean, 2011ko ekainaren 14a egiletsitako eraketa-eskrituran jasotako zehaztapenekin bat etorriaz (Protokolo-zk.: 1985).

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 1. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio; beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 15a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.